



Euskadiko enplegu datuen balorazioa, 2025eko otsaila
Enplegu eta Inklusio sailburuordea, Alfonso Gurpegui

Langabezia otsailean 908 pertsonatan jaitsi da eta 108.453 langaberekin itxi da hilabetea

Bosgarren hilabetez jarraian izan da urte arteko saldo negatiboa eta azken 17 urteetako laugarren otsailik onena

Euskadik 3.391 afiliatu irabazi ditu otsailean eta 1.017.897 kotizatzaile ditu Gizarte Segurantzaz

53.222 kontratu berri sinatu dira otsailean, horietatik % 24,3 mugagabeak, eta kopuru horrek egonkor dirau lan erreformaz geroztik

Enpleguak Euskadin bere alde ona erakutsi du berriro ere otsailean. Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin du eta sektore gehienetan, ia adin tarte guztietan, lurralde guztietan eta bai gizonen eta bai emakumeen artean langabeziak behera egin du.

Urtarrilean baino 908 langabe gutxiagorekin (- % 0,83) itxi zen otsaila eta 2024ko otsailean baino 2.092 gutxiagorekin (- % 1,89). Horrela, enpleguaren bilakaera positiboa berresten da, bosgarren hilabetez jarraian otsailean ere urte arteko saldoa negatiboa izan baita, eta, orotara, 108.453 langabe zenbatu dira.

Beherakada hori ez da ohikoa izaten otsailean; izan ere, bilakaera historikoak erakusten digu hilabete aldakorra dela, eta igoera eta jaitziera handiak ez direla hain handiak. Hala ere, aurtengoa azken 17 urteetako laugarren otsailik onena da (2015, 2018 eta 2021ekoen ondoren).

Sektoreka, hileko terminoetan, langabeziak behera egin du arlo guztietan, aurretik enplegurik ez zutenen taldean izan ezik (+132). Bilakaerarik onena zerbitzuen sektorean (685 langabe gutxiago) eta nekazaritza eta arrantzan (- % 2,73) izan da. Urte arteko datuei dagokienez, joera berdina da: zerbitzuen sektorean bilakaera hobea izan da termino absolutuetan (-1.113) eta nekazaritzan eta arrantzan termino erlatiboetan (- % 6,89). Portaera okerrera aurretik enplegurik ez zutenen artean izan da (-8).



Sexuaren arabera, gizonen langabezia (-645 langabe) emakumeena (-263 langabe) baino hobeia izan da aztertutako adin talde bakoitzean. Urte arteko balantzean, aldiz, bilakaera positiboagoa izan da emakumeen kasuan (-1.076 emakume eta -1.016 gizon).

Kontratuak eta Gizarte Segurantza

2025eko otsailean, 53.222 kontratu erregistratu dira; horietatik 12.932 (% 24,3) mugagabeak izan dira, eta ehuneko hori egonkor mantendu da lan erreformaz geroztik.

Sektoreka, etxeen eta higiezin jarduerak (kontratuen % 80 baino gehiago mugagabeak dira) eta eraikuntza (kontratazio mugagabearen tasa % 70ekoa da) nabarmentzen dira. Horrela, sektore horretako joera positiboa berresten da.

Lurralde historikoka, Gipuzkoa nabarmentzen da kontratazioan jaitzierarik handiena izateagatik, hileko % 15,20ko murrizketarekin, nahiz eta urtarrilean % 12,28ko igoera izan. Bizkaian ere kontratuen kopurua % 11,33 jaitsi da, eta Araban jaitsi da gutxien, % 7,65 hileko terminoetan. Kontratu mugagabeen ehunekorik handiena Gipuzkoan izan zen (% 25,4), Bizkaiaren (% 24,3) eta Arabaren (% 22,5) aurretik.


Afiliazioak ere datu positiboak izan zituen Euskadin, 3.391 kotizatzaile gehiago izan baitziren urtarrilarekin alderatuta, % 0,33 gehiago. Otsaila amaitzean, 1.017.897 afiliatu zeuden Euskadin; zifra hori milioi bat kotizatzailetik gorakoa da, eta azken hilabeteetan joera finkatua eta egonkorra izan dela egiaztatzen du. Urte arteko datuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan 10.330 langile afiliatu dira, 2024ko otsailean baino % 1,03 gehiago.

Laburbilduz: otsaila aurreikuspen zaileko hilabetea izaten den arren, datu positiboak berresten dira, bai kopuru absolutuetan, bai urte artekoetan, enplegua sortzen baita eta kontratu mugagabeen ehunekoa % 25 ingurukoa baita. Urte arteko joera positiboa antzematen dugu langabeziari buruzko datuetan, eta horrek Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Lanbide bultzatzen gaitu lanean jarraitzera, enplegu bila dabiltzan pertsona guztiek aukera bat izan dezaten.



Demandatzaile langabetuak 2025eko otsailean

1.- ESKATZAILE LANGABEEN HILEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008tik



2.- ESKATZAILE LANGABEEN URTE ARTEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008tik



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoak 4a